## OÑATIKO UDALA

*«San Lorentzoko udal futbol zelaiaren erabileraren ordenantza-arautzailea» behin betiko izaeraz onartzea*

2013ko otsailaren 28an Osoko Bilkurak ahobatez onartu zuen « San Lorentzoko udal futbol zelaiaren erabileraren ordenantza-arautzailea» hasiera bateko izaeraz onartzea.

Kontuan izanik, Ordenantza hori jendaurrean jarri den epean(2013-3-13ko dataz argitara eman zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 50 zkia) ez dela ez alegazio ez iradokizunik aurkeztu, Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluko azkeneko paragrafoak ezarritakoaren arabera, Ordenantza behin-betikoz onartutzat jotzea erabaki du Udal Plenoak 2013ko apirilaren 25eko bileran.

Adierazten da, Ordenantza honen aurka, Administrazio Auzigaietako Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzigaietako Aretoan, bi hileko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetara, aipatu Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara.

Oñati, 2013ko apirilaren 26a.—Alkatea. (4205)

### SAN LORENTZO UDAL FUTBOLZELAIAREN ERABILERAREN ORDENANTZA-ARAUTZAILEA

#### ATARIKOA

Euskal Jaurlaritza da San Lorentzo futbolzelaiaren jabea. Futbol zelaiaren erabilera, Larraña Institutuak (futbol zelaiaren kokalekua) eta Oñatiko herritarrek partekatzen dute, horretarako lankidetza hitzarmena bi aldeek sinatu dutelarik Larraña Institutuak eta Oñatiko Udalak. Futbol zelaiaren helburua da futbolaren sustapena Oñatiko udalerrian.

Instalazioaren ezaugarriak:

— 33 m x 70 m neurriko futbol zelaia da. Futbol-7ko bi ate ditu, lurrean ziemndatuak. Argiterirk ez du, baina hori jartzeko aukera aztertzen ddabil Udala.

— Bestalde, pilotalekua estalia eta hiru aldagela eratxiki ditu instalazioak. Eusko Jaurlaritza da instalazioaren jabea, eta horren erabilera Udaletxera transferitu gabe badago ere, epe laburrean transferientzia egitea espero da.

Honako ordenantza honen xedea da futbolzelaia erabilera publikoaren baldintzak arautzea, ekainaren 11ko Euskadiko Euskal Kirolaren 14/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorriz.

#### I. TITULUA
#### INSTALAZIOAREN ERABILERA

*1. artikulua*

Instalazioa erabiltzeko eskubidea dute beren helburuetan kirol-praktika (kasu honetan futbola) sustatzea eta garatzea duten eta instalaziora sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek, ikastetxeek, kirol elkarteek eta klubek, eta bestelako entitateek.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Aprobación definitiva de la «Ordenanza reguladora del uso del campo de futbol municipal de San Lorenzo».*

El Pleno Municipal por unanimidad en sesión celebrada el día 28 de febrero de 2.013 acordó aprobar con carácter inicial la «Ordenanza reguladora del uso del campo de futbol municipal de San Lorenzo».

Habida cuenta de que durante el período de exposición pública (fue publicada en BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 13-3-2013 –n.º50) de la citada Ordenanza no ha sido presentada ninguna reclamación ni sugerencia, en virtud de lo establecido en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 25 de abril de 2013ko acordó aprobar con carácter definitivo la Ordenanza.

Contra la presente Ordenanza, se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Oñati, a 26 de abril de 2013.—El Alcalde. (4205)

### ORDENANZA REGULADORA DEL USO DEL CAMPO DE FUTBOL MUNICIPAL DE SAN LORENZO

#### PRELIMINAR

El Gobierno Vasco es propietario del Campo de Fútbol de San Lorenzo, cuyo uso, regulado a través de un convenio de colaboración, comparten tanto el Instituto Larraña (lugar de emplazamiento del campo de fútbol) , como la ciudadanía de Oñati. El objetivo de la instalación es la promoción deportiva del fútbol, en el termino municipal de Oñati.

Características de la instalación:

— Campo de futbol de dimensiones.33 m. x 70 m, equipado con dos porterías de futbol 7 cimentadas al suelo. No cuenta con alumbrado aunque se esta estudiando su colocación.

— Además la instalación cuenta con un edificio anejo en el cual se ubican tres vestuarios y un frontón cubiertos. Esta instalación es propiedad del Gobierno Vasco y no ha sido trasferido su uso al Ayuntamiento, aunque se espera que en breve esta transferencia se haga.

La finalidad de la presente ordenanza es regular las condiciones de uso público del campo de fútbol mencionado de conformidad a lo dispuesto en la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco.

#### TITULO I
#### DEL USO DE LA INSTALACIÓN

*Artículo 1.*

Tienen derecho al uso de la instalación mencionada todas las personas físicas, centros de enseñanza, asociaciones y clubes deportivos y otras entidades que contemplen entre sus objetivos la promoción y el desarrollo de la práctica deportiva, en este caso en concreto el fútbol, y que cumplan las condiciones de acceso a la misma.

Halaber, eta salbuespen gisa, instalazioa erabili ahal izango da ikuskizunak eta kultur, gizarte edo kirol izaera duten bestelako jarduerak antolatzeko, betiere Kirol zuzendaritzak baimenduta. Horrelakoetan, instalazioaren erabilera aplikagarri den berariazko arautegiari jarraituz egingo da.

*2. artikulua: Erabiltzaileak*

Honako erabiltzaile hauek bereizten dira:

— Pertsona fisikoak (14 urtetik gorakoak)

— Kirol elkarteak

— Eskola Kirola

— Beste kirol talde batzuk

Pertsona fisikoak, eta berezko kirol praktika ez antolatuak du lehentasuna instalazioa erabiltzeko lehentasuna.

Erabiltzaile horiek egiten duten erabilera ateak itxita daudela egingo da, eta erreserbarekin zerikusirik ez duten pertsonak ezingo dira instalazioan sartu.

*3. artikulua: Kirol taldeak eta elkarteak*

Arautegi honen arabera, kirol entitatetzat hartuko dira kirol elkarteak, kirol klubak eta kirol sozietate anonimoak.

1. Kirol elkarteek instalazioa erabili ahal izango dute, beti ere Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak zehaztutako egutegiaren arabera. Kirol mailaren, antzinatasunaren, bazkide-kopuruaren eta kirolaren udal politikaren ildoetara egokitzeko irizpideen arabera zehaztuko dira entrenamenduak egiteko ordutegiaren lehentasunak.

2. Erabilera ezberdinen ordutegiak bateragarri izateko, beharrezkoa da interesa duten kirol elkarte guztiek hurrengo denboraldirako erreserba-eskaria egitea, uztaila baino lehen. Horrela, Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak ordutegiak antolatu eta zehaztuko ditu.

3. Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak bertan behera utz dezake, horretarako nahikoa arrazoi dagoenean, baimendutako edozein erreserba, baina gutxienez zazpi egun baliodun lehenago eman behar dio horren berri elkarteari.

4. Kirol elkarteek eta taldeek antolatutako kirol ekintzen ardura beraiena izango da. Horrenbestez, erantzukizun zibilaren poliza eduki behar dute kirol elkarteek eta taldeek.

5. Kirol elkarteak eta taldeak arduratuko dira instalazioko materialak eta bestelako tresnak behar bezala erabiltzeaz, eta araudiak ezarritakoa bete beharko dute.

6. Kirol lehiaketak ikusi ahal izateko sarrera kobratzen duten kirol elkarteek aldez aurretik jakinarazi beharko diote Udaleko Kirol Zuzendaritzari. Leihatila erabili ahal izango dute, baina kirol elkarte horien kontura izango da dena egokiro funtzionatzeko beharrezkoa den kobrantza eta kontrola egiteko langileak jartzea.

7. Erreserbak irauten duen bitartean, erreserba zernahitarako delarik ere (entrenamendua, partida, etab.), kirol elkarteek dute instalazioa egoki erabiltzearen ardura, Beraz, elkarteak dira instalazioaren erantzule zuzenak, eta beraiena da bertan gerta daitekeenaren ardura.

*4. artikulua: Ikastetxeak.*

Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak era berezian hartzen ditu Ikastetxeak. Kirol Zuzendaritzak lagundu egin behar die eskola kirolaren plangintzaren bidez ikasleengan ohitura osasuntsuak eta jarrera positiboak garatzeko.

De igual forma y con carácter extraordinario, la instalación podrá destinarse a espectáculo y otros usos de carácter cultural, social o/y deportivo, siempre y cuando lo permita la Comisión de deportes. En este caso, la utilización deberá ajustarse a cumplir la normativa específica que resulte de aplicación.

*Artículo 2: Usuarios.*

Se distinguen los siguientes tipos o clases de usuarios:

— Personas físicas (Mayores de 14 años)

— Entidades deportivas

— Deporte Escolar

— Otros grupos deportivos

Las personas físicas, y la práctica deportiva no organizada y espontánea tendrá prioridad en el uso de la instalación.

Los usos de la instalación que realicen se harán a puerta cerrada, no pudiendo acceder a la instalación personas ajenas a la reserva.

*Artículo 3: De las entidades deportivas.*

A los efectos de la presente Normativa tendrán la consideración de entidades deportivas las asociaciones deportivas, los clubes deportivos y las sociedades anónimas deportivas.

1. Las entidades deportivas podrán utilizar la instalación según los calendarios confeccionados por la Dirección de Deportes del Ayuntamiento de Oñati. Las prioridades para la confección de los horarios de entrenamiento vendrán dadas por criterios de categoría deportiva, antigüedad, número de socios, así como su adecuación a las directrices de la política municipal deportiva.

2. Con objeto de compatibilizar los diversos usos es necesario que las entidades deportivas interesadas en el uso de la instalación formulen sus peticiones de reserva para la temporada entrante antes del mes de julio, de esta manera de la Dirección de Deportes del Ayuntamiento de Oñati procederá a la distribución de horarios.

3. La Dirección de Deportes del Ayuntamiento de Oñati podrá, por causas justificadas, suspender cualquier tipo de reserva autorizada previa comunicación a la entidad deportiva, con una antelación mínima de 7 días hábiles.

4. La responsabilidad de los actos deportivos organizados por las entidades deportivas recaerá sobre las mismas. A estos efectos deberán de tener contratada la correspondiente póliza de responsabilidad civil.

5. Las entidades deportivas se responsabilizan del uso del material y demás enseres de la instalación, cumpliendo las normas establecidas al efecto.

6. Las entidades deportivas que cobren entrada por el acceso a los encuentros deportivos deberán de comunicarlo previamente a la Dirección de Deportes del Ayuntamiento. Será de su cuenta el personal de cobro y control necesario para el buen funcionamiento del evento.

7. Las entidades deportivas son las encargadas de vigilar el buen uso que de la instalación se hace en el transcurso de las reservas, sean estas del tipo que sean (entrenamientos, partidos, etc.). Así, las entidades son las responsables directas de la instalación, responsabilizándose en todo momento de lo que en ella acontezca.

*Artículo 4: Deporte Escolar.*

La comunidad escolar será apoyada desde dicha Dirección para favorecer el desarrollo de hábitos saludables y de conductas positivas a través del programa de Deporte Escolar.

1. Oñatiko Eskola Kirola programaren antolakuntzak San Lorentzoko Udal futbol zelaia erabili ahal izango du, beti ere eskola kanpoko ordutegian eta egutegian, eta araudi honek ahalbidetzen dituen baldintzetan.

2. Horrenbestez, urtero, irailean, Kirol Zuzendaritzak ikastetxeei eskatuko diehurrengo ikasturteari begira beren beharrak zein diren zehazteko. Eta urriaren bukaeran emango da jakitera erreserben egutegia.

3. Eskoletako taldeak, beti, programaren koordinatzaile batekin sartuko dira instalaziora, eta hitzartutako programazioan zehaztutako eskola-ordutegian. Oñatiko eskola Kirola Batzordeak izango du instalazioak eta materialak erabiltzeko ordutegian gerta litezkeen kalteen aurreko erantzukizuna.

*5. artikulua: Kirol taldeak.*

Arautegi honen arabera, kirol taldetzat hartuko da San Lorentzon kirol jardueraren bat egin nahi duten talde antolatu oro, nahiz eta kirol elkarte gisa eratu gabe egon.

1. Oñatiko kirol taldeek instalazioa erabiltzeko eskubidea izango dute aldez aurretik udaleko Kirol Zuzendaritzan hala eskatzen badute.

2. Araututa dago, bai arautegi honetan, bai udaleko Kirol batzordeak ezarritako klausuletan, talde horiek instalazioa nola erabili behar duten.

3. Oñatiko talderen batek kirol ekintzaren bat antolatzen badu, antolatutako ekintzarekin bat datorren erantzukizun zibileko poliza eduki beharko du.

*6. artikulua: Pertsona fisikoak.*

1. Udaleko Kirol Zuzendaritzak ezarritako tarteetan, 14 urtetik gorako pertsona fisikoek beren gozamen pribaturako instalazioaren erreserba egin ahal izango dute.

2. Erreserbak irauten duen bitartean instalazioan edozein gorabehera, istripu edo kalte gertatuz gero, erreserba egiten duen pertsona izango da erantzule zuzena, betiere horiek instalazioa gaizki erabiltzearen ondorio badira. Kontuan hartuta adin txikikoek ere errentan har dezaketela instalazioa bertan egindako kalteen erantzule haien guraso edo ordezkari legalak izango dira.

## II. TITULUA
## KIROL INSTALAZIOAREN ERABILERA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua*

— Instalazionaren erabilpen egunean erreserbaren titularrak eskatuko du atearen giltza edo txartela Kiroldegiko sarreran. Erabilera bukatu eta txorrotak itxita, argiak itzalita eta instalazioaren barrualdean inor geratu ez dela konprobatu ondoren, atea itxi egingo du eta giltza Kiroldegiko sarreran entregatuko du.

Aldagelak:

1. Aldagelen erabilera zeharo lotuta egongo zaio kirol jardueraren garapenari. Honenbestez, kirol-jarduera amaitutakoan, aldagelak libre utziko dira, ondoren beste erabiltzaile batzuek erabil dezaten.

2. Ezin jolas daiteke baloi eta beste objektuekin aldageletan eta pilotalekuan.

1. La Comisión organizadora de Deporte escolar en Oñati, siempre en horario y calendario extraescolar, podrá utilizar la instalación de San Lorenzo de manera concertada y en las condiciones que se determinen.

2. A tal efecto la Dirección de Deportes y durante el mes de setiembre de cada año, solicitará a los centros escolares sus necesidades para el curso siguiente. A comienzos del mes de octubre el calendario de reservas se hará publico.

3. Los grupos escolares accederán al recinto acompañados siempre por un coordinador del programa dentro del horario lectivo determinado en la programación convenida. La Comisión de Deporte Escolar será responsable de los desperfectos que se produzcan en el material y en la instalación durante el horario de uso de la misma.

*Artículo 5: De los grupos deportivos*

A los efectos de la presente normativa tendrán la consideración de grupos deportivos toda aquella agrupación organizada de personas, que sin estar constituidas como entidades deportivas, deseen desarrollar su actividad deportiva en la instalación de San Lorenzo.

1. Los grupos deportivos de Oñati, tendrán derecho al uso de la instalación previa solicitud expresa en la Dirección del servicio deportivo municipal.

2. El uso de la instalación por parte de estos grupos estará regularizado, tanto por la presente normativa, como por aquellas cláusulas reguladoras que convenga la Comisión de deportes municipal.

3. En el caso en el que dichos grupos deportivos organicen algún tipo de evento deportivo deberán de contratar una póliza de seguro de responsabilidad civil acorde con la actividad organizada.

*Artículo 6: De las personas físicas.*

1. Las personas físicas mayores de 14 años podrán formalizar la reserva de la instalación para su disfrute privado en aquellos periodos que establezca la Dirección de deportes municipal.

2. La persona que formaliza la reserva se hace responsable directo de todo incidente, accidente y/o desperfecto que se de en la instalación, en el transcurso del tiempo en el que haya realizado la reserva, siempre y cuando estos se deban a un uso indebido de las instalaciones. En este sentido y dado que la instalación puede alquilarse a menores de edad, serán responsables subsidiarios de los desperfectos causados los padres o tutores del solicitante.

## TITULO II
## DE LA UTILIZACIÓN DE LA INSTALACIÓN DEPORTIVA

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

— El mismo día del uso de la instalación el titular de la reserva pedirá la llave o tarjeta para la apertura de la puerta en el Polideportivo de Oñati. Finalizado su uso y una vez comprobado el cierre de los grifos, apagado de luces y que no queda nadie en el interior de la instalación procederá al cierre de la puerta y entregará la llave en la entrada del Polideportivo Zubikoa.

Vestuarios:

1. La utilización de los vestuarios está vinculada al desarrollo de la actividad deportiva, de forma que una vez concluida dicha actividad, estos deben de quedar libre para su uso posterior.

2. No está permitido jugar con balones u otros objetos, en vestuarios y frontón.

Futbol zelaia erabiltzeko ordutegi zehatza, utzi egingo da ordutegia amaitutakoan eta erabiltzen jarraitzeko baimen berezia ematen ez denean.

Instalazio barruan gizalegez eta errespetuz jokatuko da.

3. Lehiaketak eta ikuskizunak eskaintzen diren artean ikusleek instalazioetan egin ditzaketen ekintzen aurreko erantzukizuna erakunde antolatzaileena izango da. Gaizki erabiltzeagatik instalazioetan gerta litezkeen hausturak, instalazioak erabiltzeko erreserba egiten duen pertsonaren edo elkartearen kontura izango dira. Lehiaketa ofizialen kasuan, dagokion Klubari eta Federazioari emango zaie kalteen berri, eta tokiko kluba eta kontratu egilea izango dira erantzule ordezkatzaileak talde arerioek eragin ditzaketen kalteen aurrean.

4. Udala ez da bere instalazioetan egiten diren kiroletatik etor litezkeen ezbeharren aurreko erantzulea, kalte horiek zerbitzu ez egokiaren ondorio direnetan izan ezik, legean agintzen duen moduan.

5. Antolatzaileek osasun atentziorako zerbitzu bat eskaini eta bermatuko du dute. Erabiltzaileren batek odola darion zauria egiten badu, irten egingo da kirolgunetik atentzioa jasotzeko eta, hala behar badu, zauria garbitzeko.

6. Instalazioak beti ere kirol jantziak jantzita erabiliko dira.

7. Debekatuta dago instalazioetan erretzea eta jatea, horretarako esparruetan izan ezik. Debekatuta dago, halaber, aldageletatik kanpora janztea eta eranztea, eta sexu jakin bateko pertsonak beste sexuarentzat bereiziriko esparruetan sartzea. Debekatuta dago kristalezko objektuak eta animaliak instalazioetan sartzea. Debeku horretatik salbuetsita daude txakur-biderakusleen gainean indarrean dagoen arautegiaren araberako animalien sarrera.

Ildo berean, debekatuta dago zelai artifiziala kaltetu dezakeen edozer jatea eta edatea (pipak, fruitu lehorrak, gozokiak, e.a.).

8. Zelai gainean ezingo dira material eta/edo elementu mugikorrak erabili.

9. Zelai barruan ezin da erremintarik edo bestelako tresnarik erabili.

10. Debekaturik dago belar artifiziala honda dezaketen jarduerak egitea eta objektuak jaurtitzea (pisuak, jabalinak, hondakinak, etab.).

11. Aldageletan eta komunetan debekatuta dago erretzea, jatea, eta alkoholdun edariak hartzea.

12. Debekatuta dago instalaziora alkoholdun edariak sartzea eta kontsumitzea.

13. Futbol zelaian gomazko zolak eta takoak dituzten oinetakoak erabiliko dira. Ahal dela, tako asko duten zolak erabiliko dira, eta orpo aldean gutxienez 4 tako izango dituzte. Arau hau beste klubetako taldeei jakinaraziko zaie partida ofizialetan.

14. Udalari jakinaraziko zaio futbol zelaian ohikoa ez den edozer nabaritzen bada, udalak konpon dezan.

15. Guztiz debekatuta dago futbol zelaian eta futbol-zelaitik kanpo gai piroteknikoak jaurtitzea.

## III TITULUA
## ERRESERBA EGITEKO ARAUAK

*1. artikulua*

— Kirol instalazioaren egunaren eta orduaren erreserba ondorengo egutegi eta ordutegiari lotuta egin beharko da:

La utilización del campo de fútbol que tenga un horario fijado para su uso, debe abandonarse una vez éste se haya cumplido, salvo autorización expresa.

Dentro de la instalación hay que comportarse con educación y respeto.

3. La responsabilidad de los actos del público en las instalaciones durante la celebración de competiciones y espectáculos recaerá sobre las entidades organizadoras. Cualquier deterioro o rotura en las instalaciones que se origine por el uso, serán de cuenta de la persona o entidad que efectuó la reserva de utilización. En el caso de competiciones oficiales estos daños serán comunicados a la Federación o Club correspondiente, siendo el club local y contratante el responsable subsidiario de los desperfectos que originen los equipos contrarios.

4. El Ayuntamiento no se hace responsable de los accidentes que puedan sobrevenir por la práctica deportiva en todas sus instalaciones, salvo los que resulten imputables al servicio de acuerdo con la ley.

5. El organizador del evento deportivo deberá de garantizar la existencia sanitaria correspondiente. Cuando un usuario sufra una herida sangrante deberá de retirarse de la zona deportiva para su atención sanitaria y, en su caso, para la limpieza de la zona afectada.

6. La utilización de las instalaciones se hará siempre con atuendo deportivo.

7. No está permitido fumar ni comer en el interior de las instalaciones, excepto en las zonas señaladas al efecto, vestirse o desvestirse fuera de los vestuarios, así como la entrada a personas de un sexo a espacios reservados exclusivamente a otro sexo. Queda prohibido introducir objetos de cristal o animales en las instalaciones, a excepción de lo que resulte de la normativa vigente sobre perros-guía.

En este sentido, no se podrá comer ni beber nada que pueda dañar el césped artificial (pipas, frutos secos, caramelos, etc.).

8. No se podrán usar sobre el césped materiales y/o elementos móviles.

9. Dentro del césped se no está permitido el uso de herramientas y utensilios de ningún tipo.

10. Se prohíbe cualquier actividad así como el lanzamiento de objetos (pesas, jabalinas, residuos, etc.) que puedan dañar el césped artificial.

11. Se prohíbe fumar, comer y tomar bebidas alcohólicas en los vestuarios y servicios.

12. Se prohíbe introducir y consumir bebidas alcohólicas en la instalación.

13. En el campo de fútbol se utilizará calzado con suela de goma o con tacos. A poder ser, se utilizarán suelas con muchos tacos y en el talón por lo menos deberán tener cuatro. Esta norma deberá ser comunicada a los equipos de otros clubes para los partidos oficiales.

14. Se informará al Ayuntamiento de cualquier hecho no habitual que se perciba en el campo de fútbol, para que este sea reparado.

15. Se prohíbe terminantemente el lanzamiento de objetos y materiales pirotécnicos, tanto en el césped como fuera de este.

## TITULO III
## NORMATIVA DE RESERVAS

*Artículo 1*

— La reserva del día y de la hora de la instalación estará condicionada al calendario y horarios siguientes:

| *Eguna*<br>*Día* | *Ordua*<br>*Hora* |
|---|---|
| Irailak 1etik abenduak 20ra<br>Del 1 de septiembre al 20 de diciembre | 17:00etatik 21:00etara<br>De 17:00 a 21:00 horas |
| Abenduaren 21etatik martxoaren 21era<br>Del 21 de diciembre al 21 de marzo | 17:00etatik 19:00etara<br>De 17:00 a 19:00 horas |
| Martxoaren 22tik ekainaren 30ra<br>Del 21 de marzo al 30 de junio | 17:00etatik 21:00etara<br>De 17:00 a 21:00 horas |
| .- Urte osoan zehar asteburuak<br>.- Fines de semana durante todo el año<br>.- Urte osoan zehar jai egunak<br>.- Festivos durante todo el año<br>.- Eskola oporrak (gabonak eta aste sabtuak)<br>.- Vacaciones escolares ( navidad, semana santa)<br>.- Uztaila – abuztua<br>.- Julio y agosto | 09:00etatik 21:00etara<br>De 9:00 a 21:00 horas |

Proposamen honek, dena den, aldaketak izan ditzake, bai egutegian, bai ordutegian. Zubikoa Kiroldegian emango zaio erabiltzaileari egutegiaren eta ordutegiaren berri, baita horietan gerta daitezkeen aldaketen berri ere.

Instalazioaren erreserba, gutxienezko 24 orduko aurrerapenarekin egin behar da.

Erreserba egiteko nahitaezkoa da dagokion tasa ordaintzea kiroldegian. Tasa kobratu eta gero ez da onartuko erreserbak baliogabetzea.

Ezinbesteak bultzatutako arrazoiengatik Kirol Zuzendaritzak, une batean, erreserba bertan behera utzi ahal izango du, eta kasu horretan dagokien zenbatekoa itzuli egingo die erabiltzaileei.

Erreserba egin duen pertsona arduratuko da futbol zelaia lehen zegoen moduan lagatzeaz, hau da, garbi, txukun eta objektu barik.

Eskatzailea izango da, beti ere, talde horren jokaeraren erantzule instalazioan.

## IV TITULUA
## ORDAINKETAK

*1. artikulua*

Instalazioa erabiltzeko baimena dutenek dagokien tasa ordaindu beharko dute.

Erreserba baliogabetzen bada ez da tasa itzuliko, Udal kirol batzordeak tasa itzultzea onartzen dituen kasu bereziak ezik.

Egoki irizten badu, udaleko Kirol batzordeak interes publikoko arrazoiengatik tasa ordaintzeaz salbuetsi ditzake taldeak eta elkarteak.

Kirol Batzordeak urtero helaraziko dio Udalari tasen proposamena, Plenoan onartua izan dadin.

## V: TITULOA
## IKUSKIZUN PUBLIKOAK

*1. artikulua*

Ikuskizun publikoen gaineko arautegiaren araberako jardueretarako instalazioaren erreserba egiteko honako arau hauek beteko dira:

1. Dagokion eskarian, eskatzailearen datuez gainera, ekitaldiaren datu garrantzitsuakadieraziko dira, parte- hartzaileak, gutxi gorabeherako iraupena eta abar. Eskaera gutxienez hilabete lehenago egingo da.

Esta propuesta puede sufrir modificaciones de calendario así como de horario. En el polideportivo Zubikoa se informara al usuario sobre el calendario y de los horarios, así como de los cambios que en estos puedan producirse.

La reserva de la instalación hay que efectuarla con una antelación mínima de 24 horas.

Para formalizar la reserva es obligatorio abonar la correspondiente tasa en el polideportivo. Realizado el cobro, no se admitirá la anulación de la reserva.

Por causas objetivas de fuerza mayor la Dirección del servicio municipal de deportes puede suspender puntualmente la reserva reintegrando su importe a los usuarios/as.

La persona que realice la reserva será la encargada de dejar el campo de fútbol tal y como estaba, es decir, limpio, ordenado y sin objetos en las distintas instalaciones.

En cualquier caso, la persona solicitante será la responsable del comportamiento de ese grupo de gente en la instalación.

## TITULO IV
## ABONOS

*Artículo 1:*

Los usuarios que tengan autorizada la utilización de la instalación están obligados al pago de la tasa correspondiente.

Anulada la reserva no se admitirá la devolución de la tasa, salvo en casos excepcionales que serán estudiados por la Comisión de Deportes.

Podrán quedar exentos del pago de la tasa, aquellos colectivos y entidades que por motivos de interés público la Comisión de deportes municipal considere.

La Comisión de Deportes remitirá cada año al Ayuntamiento la Propuesta de Tasas para su aprobación en Pleno.

## TITULO V
## ESPECTACULOS PUBLICOS

*Artículo 1.*

La reserva de la instalación para actividades sometidas a la normativa sobre espectáculos públicos se ajustará a las siguientes reglas:

1. En la solicitud correspondiente deberán figurar, además de los datos del solicitante, los datos relevantes del acto, tales como intervinientes, duración estimada, etc. La solicitud deberá formalizarse con una antelación mínima de un mes.

2. Eskaerari baiezko erantzuna eman bazaio, ekitaldia burutu baino gutxienez hamabost egun lehenago, honako hau egingo du eskatzaileak:

a) Dagokion instalazioaren zesio-kontratua sinatu.

b) Instalazioko arduradunarekin bilera tekniko bat eduki.

c) Dagokion tasa ordaindu

d) Erantzukizun zibilaren poliza aurkeztu Udalaren alde, kasu bakoitzean zehazten den zenbatekoan

e) Instalazioen berme gisa Udalak zehazten duen fidantza utzi.

Instalazioa erabiltzeko baimena duten pertsona edo erakundeek derrigorrezko baimenak lortu beharko dituzte ikuskizunen alorrean. Baimen horiek egiaztatzeko, beren kopiak Kirol Zuzendaritzan aurkeztu behar dira ekitaldiaren eguna baino gutxienez bost egun aurretik, eta behar izanez gero, ekitaldiari dagokion Larrialdi planaren kopia ere aurkeztuko da.

3. Erabileraren zesioa kontratatu````riko ekitaldia burutzeko soilik egiten dela ulertzen da, eta horrenbestez, horretan ez da sartzen entsegu eta muntaiarako aurreko edo ondoko erabilera. Erabilera hori Kirol Zuzendaritzarekin adostu beharko da.

4. Erabileraren zesioa instalazioa ikuskizunerako jendearentzako irekia dagoen orduetarako egiten dela ulertzen da, eta hasierako baldintza berdinetan utzi behar da instalazioa. Izaera orokorrez, programaturiko ekitaldiak ez du hiru ordu eta erditik gora iraungo, abenduaren 21etik martxoaren 21era bitarteko epea izan ezik, epe horretan 2 ordukoa izango delarik.

5. Instalazioan ikuskizun publikoak egiteko baimena duten pertsona edo erakundeek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Esparruan dauden iragarkiak errespetatuko dituzte.

b) Ikuskizunaren antolaketatik etorritakogastuak ordainduko dituzte.

c) Muntaia eta segurtasunerako, sarrerak kontrolatzeko eta ikusleak beren lekuetan kokatzeko beharreko langileak kontratatuko dituzte.

d) Segurtasun-eremuan eta larrialdietarako irteeretan ez da baimendutakoak ez diren ibilgailurik edo oztoporik egongo.

e) Esparruan eta kanpoaldeko segurtasun eremuan ez da inolako salmenta-gunerik ezarriko.

f) Ikusleak esparrura sartzeko ateak ekitaldia hasteko aurreikusitako ordua baino gutxienez ordu eta erdi lehenago irekiko dira.

## VI TITULUA
## ZEHAPEN ARAUBIDEA

*1. artikulua.*

Instalazioaren erabilera baldintzak ez badira betetzen, zigorrak jarri ahal izango dira, Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera.

Nolanahi ere, zigorrak jartzea Udalak erabiliko duen azken neurria izango da, Udalaren helburu nagusia Oñatin kirola sustatu eta garatzea dela ulertzen baita.

Zigorrekin batera, kalte-ordainak eskatu ahal izango dira instalazioan eginiko kalteengatik.

2. En el caso de que la solicitud sea atendida favorablemente, con una antelación mínima de quince días a la celebración del acto, el solicitante deberá:

a) Proceder a la firma del contrato de cesión e la instalación correspondiente.

b) Mantener una reunión técnica con la persona responsable de la instalación solicitada.

c) Hacer efectiva la tasa correspondiente.

d) Presentar una póliza de responsabilidad civil a favor del Ayuntamiento por la cuantía que se establezca en cada caso.

e) Depositar la fianza que establezca el Ayuntamiento en garantía de las instalaciones.

Las personas o entidades autorizadas para el uso de la instalación deberán obtener las autorizaciones preceptivas en materia de espectáculos. Para acreditar su obtención deberá entregarse copia de las mismas a La Dirección de Deportes con una antelación mínima de cinco días a la celebración del acto, así como copia, en su caso, del Plan de emergencia propio del acto.

3. La cesión de uso se entiende exclusivamente para la realización del acto contratado, no comprendiendo por tanto, la utilización anterior o posterior para ensayos o montajes, que serán convenidos en particular con la Dirección de Deportes.

4. La cesión de uso se entiende efectuada por las horas que la instalación esté abierto al público para el espectáculo, debiendo dejar la instalación en las mismas condiciones en que se encontraba al principio. Con carácter general, la duración del acto programado no excederá de tres horas y media, salvo el período comprendido entre el 21 de diciembre y el 21 de marzo que será de 2 horas.

5. Serán obligaciones de las personas o entidades autorizadas para la celebración de espectáculos públicos en la instalación las siguientes:

a) Respetar los anuncios existentes en el recinto.

b) Asumir los gastos derivados de la organización del espectáculo.

c) Contratar el personal necesario para los montajes, la seguridad, el control de accesos y la acomodación de los espectadores.

d) Mantener libre de vehículos que no estén debidamente autorizados y de obstáculos de todo tipo la zona de seguridad y las salidas de emergencia.

e) Mantener libre de puntos de venta de todo tipo el recinto, así como la zona de seguridad exterior.

f) Abrir las puertas de acceso al recinto para el público con una hora y media de adelanto como mínimo a la hora prevista de comienzo del acto en cuestión.

## TITULO VI
## REGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 1*

El incumplimiento de las condiciones de utilización de la instalación podrá dar lugar a la imposición de sanciones, de acuerdo con lo previsto en el presente Reglamento.

En cualquier caso, la imposición de sanciones será la última medida que utilizará el Ayuntamiento, entendiendo que el fin del mismo es esencialmente la implantación y desarrollo de la práctica deportiva en Oñati.

La imposición de sanciones será compatible con la exigencia de indemnización de los daños ocasionados en la instalación.

*2. artikulua.*

Oso arau-hauste larriak izango dira:

1. Udalaren edo beste erabiltzaile batzuen ondasunak lapurtzea

2. Asmo txarrez eta zabarkeria larriaz lokal, instalazio edo materialetan kalteak sortzea, kalte horien kostua 5.000 eurotik gorakoa denean.

3. Beste erabiltzaileak edo Udaleko langileak larriki arbuiatzea, pertsonen ohorearen kontrako erasoak, irain larriak, iskanbilak eta atentatuak egitea.

4. Arau-hauste larriak berriro egitea.

*3. artikulua.*

Arau-hauste larriak izango dira:

1. Kirol instalazioetan edo haien sarreretan iskanbilak sortzea, jokaera hori oso arauhauste larritzat hartzen ez denean.

2. Asmo txarrez eta zabarkeria larriaz lokal, instalazio edo materialetan kalteak sortzea, kalte horien kostua 2.500 eurotik gorakoa eta 5.000 eurotik beherakoa denean.

3. Beste erabiltzaileak edo Udaleko langileak larriki arbuiatzea, eta erabilera eta ohituren aurka doazen jarrerak izatea.

4. Arau-hauste arinak berriro egitea.

*4. artikulua.*

Arau-hauste arinak izango dira:

1. Asmo txarrez eta zabarkeria larriaz lokal, instalazio edo materialetan kalteak sortzea, kalte horien kostua 2.500 eurotik beherakoa denean.

2. Instalazioetan iruzurrez sartzea.

3. Udaleko langileek esandakoa ez betetzea edo beste erabiltzaileekin modu onean ez jokatzea.

*5. artikulua.*

Honako mailaketa honen arabera zigortuko dira arau-hausteak:

1. Oso arau-hauste larriak eginez gero, instalazioak erabiltzea debekatuko da 6 hilabetetik urtebeterako epean edo/eta 600etik 6000 euro arteko isuna jarriko da.

2. Arau-hauste larriak eginez gero, instalazioak erabiltzea debekatuko da hilabete batetik 6 hilabeterako epean edo/eta 60etik 600 euro arteko isuna jarriko da.

3. Arau-hauste arinak eginez gero, instalazioak erabiltzea debekatuko da hilabete arteko epean edo/eta 60 euroko isuna jarriko da.

*6. artikulua.*

Kirol Zuzendaritzaren zeregina da arauhauste arinengatik zigorrak jartzea.

Udal Gobernu Batzarrari dagokio oso arau-hauste larri edo arau-hauste larriengatik zigorrak jartzea.

Arau-hausteen mailaketan kontuan hartuko dira berrerortzea, nahita egin den ala ez eta instalazio publikoetan eginiko kalteen neurria.

*7. artikulua.*

Espedienteen tramitazioan Euskal Administrazio Publikoen zigorrak jartzeko ahalmena arautzen duen araudiak xedaturikoa beteko da. Hala ere, Kirol Zuzendaritzak kautelaz ustez araua hautsi duen pertsonari instalazioaren sarrera debekatu dakioke.

*Artículo 2.*

Se consideran faltas muy graves:

1. La sustracción de bienes propiedad del Ayuntamiento o de otros usuarios.

2. Causar, mediante mala fe o negligencia grave, daños en los locales, instalaciones o materiales, cuya reparación importe más de 5.000 euros

3. La grave desconsideración con otros/as usuarios/as o con el personal del Ayuntamiento, agresiones y graves insultos, escándalos y atentados contra el honor las personas.

4. La reincidencia en faltas graves.

*Artículo 3*

Se consideran faltas graves:

1. Los desordenes públicos en la instalación deportiva o en sus accesos, cuando la conducta no merezca la consideración de muy grave.

2. Causar, mediante mala fe o negligencia grave, daños en los locales, instalaciones o materiales, cuya reparación importe más de 2.500 y menos de 5.000 euros.

3. La grave desconsideración con otros/as usuarios/as o con el personal del Ayuntamiento y aquellos comportamientos que sean contrarias a usos y costumbres.

4. La reincidencia en faltas leves.

*Artículo 4.*

Se considerarán faltas leves:

1. Causar, mediante mala fe o negligencia grave, daños en los locales, instalaciones o materiales, cuya reparación importe menos de 2.500 euros.

2. El acceso fraudulento a las instalaciones.

3. La desatención a las instrucciones del personal de Ayuntamiento o la ligera incorrección con los/as demás usuarios/as.

*Artículo 5.*

Las infracciones serán sancionadas de acuerdo a la siguiente gradación:

1. Las infracciones muy graves prohibición de utilización de las instalaciones de 6 meses a un año y/o multa de 600 a 6.000 euros.

2. Las infracciones graves con prohibición de utilización de las instalaciones de 1 a 6 meses y/o multa de 60 a 600 euros.

3. Las infracciones leves con prohibición de uso de las instalaciones hasta un mes y/o multa hasta 60 euros.

*Artículo 6.*

La competencia para la imposición de sanciones por infracciones leves corresponderá a la Dirección de Deportes.

Las sanciones por infracciones graves y muy graves corresponderán a la Junta de Gobierno del Ayuntamiento.

En la graduación de faltas se tendrán en cuenta la reincidencia, la intencionalidad y la intensidad de los daños a las instalaciones públicas.

*Artículo 7.*

La tramitación de los expedientes se ajustará a lo dispuesto en la normativa reguladora del ejercicio de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas. No obstante, la Dirección de Deportes podrá acordar de forma cautelar la prohibición de acceso a la instalación del presunto infractor.

VII TITULUA
INTERPRETAZIOA

*1. artikulua.*

Udalari dagokio arautegi honen aplikazioan gerta daitezkeen zalantzetan erabakitzea, eta behar beste aldaketa egitea instalazioak hobetzeko xedez.

*2. artikulua.*

Araudi honetan aurreikusi ez denerako xede berarekin zerikusia duen beste edozein legezko edo erregelamenduzko xedapenek diotena hartuko da kontuan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza edo araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 65.2 artikuluak xedatzen duen epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.

TITULO VII
INTERPRETACION

*Artículo 1.*

Será competencia del Ayuntamiento resolver cuantas dudas surjan en la aplicación de la presente normativa, y realizar las modificaciones que sean necesarias con el objetivo de mejorar las instalaciones.

*Artículo 2.*

En todo lo no previsto en este reglamento, se aplicará lo dispuesto en cualquier otra ley o reglamento que tenga el mismo objetivo.

DISPOSICION FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y una vez transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el pleno del Ayuntamiento.